

7ER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

271n. zenbakia
martia 2002



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



ERROMANIKOA BIZKAIA'N

- MUNGIA'KO ZUMETXA
- GALDAKAO'KO ANDRA MARI'REN ANTZEKOA
- ESTIBALIZ'KO ANDRA MARIA'REN SASOIKOA
- FRUNIZ'KO ATE EDERRAREN GIROKOA

*Zer nolako zortea
gure hiakuntzarena,
trilla iturritatik
Maten duena.
Euskararik onena
da norberarena,
eta txarrena, berriz,
egiten ez deva.*

Xabier Euskitze,
2001eko arriaren 18a



euskararik onena **zeurea**



N



Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia



Bizkaia

IDAZLEAK

1.—AURRERA

"Zer" gure aldizkaria aurrera ta aurrera doa bere bidea egiten eta laster, aurtengo udaldian, beteko dira ogei ta bost urte lenengoz agertu zala.

2.—IDAZLEAI EZKERRAK

Olako bide-aldia ez dau egiten batek bakarrik, eta ez talde txiki batek be. Askoren laguntza bear da: Irakuricak, ordaintzailleak, kobratzailleak, bialtzailleak, kontu-eroaleak, irarkolako langilleak, zuzentzailleak eta abar.

Baiña oraingo onetan idazleai begiratzen dautset era bereizi baten: Zenbat idazlek idatzi dauan gure aldizkarian ogei ta bost urte oneitan! Eta guztiak duan! Ezertxu be kobrau barik! Lan orrek benetako abertzaletasuna agertzen dau eta poztu egiten gaitu. Eskerrak guztiai!

3.—IRU EKINTZA

Geure egin-bearra dala uste dogu geure idazleak sortzea ta ugaritzea eta au be aberri-lana da. Bere elertia bizi dauan aberriak bizia galtzeko arrisku gitxiago dauka.

3.1.— IPUIN-SARIKETA

Urtero eratzen dogu, Bilbao'ko Udalaren laguntzaz gure Ipuin-Sariketa. Ez dira asko idazleak, baiña urtero etorten dira barriren batzuk. Gaiñera ipuin sarituak argitaratu egiten doguz eta orrelan idazteko gogoia zabaltzen da. Zenbaki onetan datoz igazko saridunen izenak.

3.2.— EUSKAL-ASTEIA

Idazleak sortzeko bigarren ekintza da au: Urtero bost iziarik egiten dabe itz gure eukal-asteian eta eurak idazten daben itzaldia ZER'en agertzen da, irakurleen jakintzarako. Foru-Aldundia lagun ona dogu.

3.3.— EGUTEGIA

Ba-daroaguz ogei ta bost-bat urte eguneroko orritxua daukan egutegia argitaratzen. Asko dira bizi-bizi eskatzen dabenak eta irakurten dabenak eta sei-bat izaten gara idazten dogunak. Orrelan etxe-barrura sartzen da gure euskereia. Pozik gagoz Bilbao Bizkaia Kutxa (b.b.k=)'ren laguntaz ateraten dogun egutegi onegaz. Euskereia zabaltzen dogu eta orrelan sortzen dira idazleak.

4.—GAIK

Gure aldizkari onetan edozein gai erabili leike, baiña geien agertzen diranak euskereia, elertia edo literatura eta edestia edo kodaira dira. Errez ikusten da gai oneik oso zabalak dirala.

5.—BIZKAIERAZ

Irakurle batzuk dana bizkaieraz idaztea nai dabe eta ori esaten dauskue eta orretarako alegindu be egiten gara, baiña giputzakaz dogun alkartasunak beartzen gaitu euren idaz-lanak be artzera, noizean bein beintzat.

6.—IRAKURTEN DA?

Iñoz idazleari olako zerbait bururaten jako: Iñok irakurten ete dauz gure idazkiak?

Eta itaundu be egin dogu. Milla ta berreun ale inguru zabaltzen doguz eta artzen dabezenen artean mota oneik aurkitzen doguz:

— Batzuk dan-dana, itzik galdu barik, irakurten dabe.

— Beste batzuk asieratik azkenera begiratzen dabe, ez dana irakurri.

— Beste batzuk jakin be ez dakie euskereia, baiña laguntzeko oraintzen dabe.

—Asko dira arpidedun izan barik etxean irakurten dabenak.

7.—ZABALKUNDEA

Ogeita bostgarren urtea dala-ta, Bizkaia-Irratian iragari dogu gure aldizkaria. Asteian bein entzuten da iragarkia, baiña oso gitxi da. Zabalkunde geiago egin bear dogu.

Irrati-bidez egiten dan zabalkunde arraintzarako sarearen antzekoa da, baiña orrez gaiñera irakurle bakoitzak amuac,az egin bear dau arraintzan.

Erri batzutan ainbat arpidedun daukaguz, baiña askotan bat bera be ez.

8.—POZIK

Pozik diardugu ba geure lanean, erriaren alde duan egiten dan lanak emoten dauan pozagaz, baiña ezin ukatu eragin aundiagoa bear dauala gure ekintzak.

OLAZAR'tar Martin'ek

Euskerazaleak

Ipuin-sariketa 2001

| | |
|------------------------|---------------------------|
| LENENGO SARIA | MURUA ta GOÑFtar Jose M.' |
| BIGARREN SARIA | ARRINDA'tar ANES |
| IRUGARREN SARIA | GOIKOETXEA'tar Iñaki |
| LAUGARREN SARIA | AURRE APRAIZ'tar Balendin |
| BOSTGARREN SARIA | LEGARRETA'tar Asier |

BILBAO'n. 2002n.urteko urterillan

APAI-MAIKOAK

MARTA TXORI

(1865-1946)

MARTA TXORI izeneko andra alkartearen eratu da gure Bakion. Andrak alkartu dira curen gauzak, ardurak eta arazoak eurek euretara gobernetako. Alkarte barri orreri izenen bat imini bear eta MARTA TXORI izena aukeratu dabe, Marta Txori Bakion erriko andra ezaguna izan zalako edo.

Baina nor izan zan Marta Txori? Zer dakigu aren barri? Sasoi batetik aurrerakoak gomutauko dira ondo andra aren inguruko gorabeerakaz-eta. Marta Gaminde Argaluze izan zan izenez. 1865. urteko zezeilaren 23an jaio ziran Jauregizarran (*Dxéurisarre*) bera eta beraren aizta bikotxa Margarita. Orrezaz ganera, neba bat eta aizta bat geiago euki jezan gure Martak. Gero, unekada baten aita-amak eta lau umeak Txorietxen (*Txorietze*) bizi ziran, errentadore.

Erriaren ezagun-ezaguna izan zan, apala, beartsu eta apur bat bakana izan zalako. Izan leiteke, Marta Txori ezizena apaingarriak janztea gogoko jelako ortik etortea. Beste batzuen ustez, oster, Txorietzeko azalako esaten ei eutsoen ezizen ori. Gorputzez txiki, bizkorra eta zuurra be bazan. Agin asko falta jezan eta ez zan burutik ondo-ondo ibili, aurki. Buruzapi, lepo-oial eta soineko gris jantzita ibiltan zan, aterkina beti aldean eroaten jela.

Prezetoriaren (*Prestetóridxe*) etxatzean biziten zan, antxe bakar-bakarrik, ara batuten ziralako erriko beartsuak. Bakiotarrak emoten eutsoenagaz ataraten jen bizi-modua aurrera. Soloan zein bedarra ebagiten lagunduten jen an-or-emen erriko etxe askotan. Eleizpea garbituten jen. Bertako beaeren ganetik batutako mistoakaz eta eleizako argimutiletan urtutako argizariagaz kandelak egiten jezan, gero erriaren saldu edo emoteko. Eleizan argimutil bat eukiten jen berarentzako, berak egindako kandelegaz eta guzti. Esku onekoa zan antza, ze "erretratu" antze-koak-eta pintetan jezan. Erretratuok etxean eukiten jezan eskegita, eta noz edo noz, erriko umeai erakusten eutsezan.

Jakiak-eta emoten eutsoezanakaine joaten zan egunean-egunean, etxerik etxe. Esaterako, Uribera (*Uribe*) joaten zan sarritan esnetan, esnea batu eta kantetan asten ei zan Iribeko maastipean. Gero, batutakoekaz etxera joandakoan, eguneroko otorduak egiten jezan. Gabonetan eta erriko jaietan,

barriz, erritarrak etxera ekarten eutsoezan jateko eta edatekoak. Eta ez gitxi, gero!

Erriko gaztetxu zitalak, baina, okerkerietan egiteko itzelak egiten eutsoezan. Ernegau eragin arte. Inoz, mutilen batek ostuka musuren bat berari emon eta bera, sutan, argirika asten jakon: "Zantarra! Zantar ori!" Alan eta guzti be, txantxetan ibiltea gustetan ei jakon.

Askotan, bide nagusian bidean gora eta bidean beera ibiltan zan, ara-onaka, inora joan barik. Oneetan, batzuetan burua artez, arro antzean, besteetan, barriz, burua makurtuta dauala, beeari adi balego lez. Santu guztietara joaten zan, oinez: Busturira, Bermeora, Jatabera, Larraurira, Meñakarra...

81 urtegeaz il zan Prezetorian, 1946. urteko bagilaren 11an, il egin zan bizi izan zan eran, beartsu.

Iniaki Martiatu

BERBALAPIKOA

(BB: BAKIOKO BERBEA)

argimutil = kandelero. (Bb)

aterkin = guardasol.

bakan = bitxi, oiezlango.

gomautau = akordau, gogoratu.

jaki = jateko. (Bb)

jen (*dxen*) = eban. (Bb)

jezan (*dxesan*) = ebazan. (Bb)

lepo-oial = lepoan jantziteko zapi andia.

otordu = bazkalordu. (Bb)

Prezetoria (*Prestetóridxe*) = Etxe-Pinto ondoan egoan, gaur eguneko aparkalekuan.

zital (*sitxel*) = zirikatzaille. (Bb)

OARRA: Artikulua idazteko zein argazkiak izteagaitik Sabin Uriartek, emondako biotzezko laguntzinoa benetan eskertu gura dogu lerrootatik. Marta Txoriren ganerako kontu geiago batu doguzan arren be, beste inork beraren ganean zeezer geiago esan edo aitatu gura badeusku, pozarren entzungo deutsogu.

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 18,03 € (3.000 pezeta). Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

EUZKADI, ERDALERRIA'REN JOPU?

Gizon zintzoa ez da auzokidearen bizkarretik, berea Juan Askatasuna defendatzen duana.

36'ngo. guda madarikatu artan, Euzkadi zainbiziz burukatu zan eta espetxetan usteldu. Urte luzeetan oiñaze-zigorra jasan zuan, bere-berea ta auzolagunarena zan Askatasuna aldezteagatik, auzoko oien jokabidea berdiña ta lagunkoia izango zalakoan.

Baiñan orduan ere, Ebro'tik beerako auzokide danak kabi bereko putreak zirala konturatu giñan, tiroak ez baitzetozen bakarrik frankisten aldetik, errepublikar "*aliatuak*" beraiek ere barrikada berberetik aritzen bait-ziran euren modu rnaltzurrez gure aurkako tiroketan.

Auen leialtasunik gabeko erasoketak etziran erbestean ere auldu ta txepeldu. Ni, areagotu zirala esango nuke; batzuk disimuloz biguinki jokatu naiean eta geienak trikutsu batere xuriketarik gabe.

"Erdalerra erromesa" (*España peragr na*) arek aske bizi nai izan zuan. Erbestean gure euskal babesa, adiskidetasuna lortzen saiatzen ziran. Baiñan, azken betean mendeko nai ginduten gu, ez aldi baterako batiko baizik. Eta jopu, batez ere, zetorren España berrirako.

Ordurarte, curen inñuxente itxurapean, errukigarri zeritzaizkigun gure erbeste "bidelagun" aiek, euskal arazoa aipatzen zan bakoitzean, *ori-gorri* zale ziran aietxen antzera, kopeta zimurtuz keiñu zakartsu jartzen zutela komenzitu giñan. Danak, batzuk eta besteak, berdiñak ziran: otso-zuloko kume, españaier.

Eta diodan guztia ez da artarako bidegairik ez daukadalako. Alderantziz baiño.

Begira: erbestealdiko urte odeitsu zaar aietan ba'zan gure inguruan, "*Iberiar Kontsellua*" zeritzana, Salvador Madariaga buztangorri arek burutzen zuana. Euskal abizenak etzion iritzia gure euskal aldera lerratzen. Eta bere mizto lerdetsuaz egundokoak jaurti zizkigun gure aurka.

Ala zion: "gallegoak, katalanak, leondarrak... Edestian gauza aundi, bakar eta originala sortu digute, "*lo español*". baiñan, banatzailleak (gu, alegia) ez dakite zer dan aurrerapena, zer dan billakaera. Zenbaiten artean eta mendetan barrena eraiki dugun espiritu espñaierarra suntsitu nai digute euskaldun banatzaille auek. Eta naiago dute beren esparru edo artalde berezia sortu, aberekoia noski, espiritu gabekoa".

Ori-gorriak eta *ori-gorri-moreak* txaloka artu zuten Madariaga'ren espiritu goren-aizeputzaren idaz-ujol

edentsua; eta baita ondorez zenbait izparringitan azaldu ere ustelkeri gaizkor au.

Nere ustez, au ez da gizon bakar batek egiña, zenbaiten (espñaier dallen) eragiketa bateratua da.

Ez da zalantzan jartzekoa bereizgarri zaien etiketa ideologikoaren gaiñetik, ba zala eta ba'dala oiek bateragarri duten zerbait: euskal Erriarekiko curen betiko bekaitza, betiko gol-roto atabiku ta metafisikua, gure arazoa neurtu ta *erabakitze* orduan bateratzen (lituana. Danak espñaier moztroz datoz estalita. Batzuk, esan dudanez, piperpote-kolore gorri-oriz eta besteak gorri-ori-morez. Kukumarru danetan Erdalerra inperialistaren aurpegi ezkabitsua ezkututzen da.

Esaidazute, ba al da errepublikar buruzagirik gure askatasunaren alde agiri-agirian azaldu danik?

Garai aietako ainbat errepublikar eragilleren esakizun publikuak irakurtzen ari natzaizute oraintxe bertan. Begi aurretik igaro zaizkit Gordón Ordex'en esanak espñaier erkalean ministrari-kontselluko buruzagizarenenak. Largo Caballero'renak. Alcalá Zamora'renak. Danok oso liberalak, beren iritzietan oso zabalak. Ba, ara erakusburu Alcalá Zamora'k pasarte batean dirauskuna: "*...katalanen eta euskaldunen erreibindikazio arazoa, Guardia Zibilla'ren arazo ximplea da*".

Ez dut uste gure alde batere gizonki eta demokratikokiro mintzo danik. Ez al da agia? Danak euren eragintzapean oillo-egapean esaneko, txita apal nai gaituzte euskaldunok. Eta ona nere galdera: auek gure adiskide ba'dira, nolakoak ote gure etsaiak? Naiz-eta errepublikanoz jantzi, *España Una'ren* aizto zorretzez sartakatu nai gaituztenak etzaizkigu inñundik ere jadanik sinisgarri, bizkarreko txeratsua emanez ba'datozkigu ere.

Oso bestalako azaltzen zaigu joan dan gizladi ondarreantsu arte bizi izandako Pi y Margall federalista ospatsua. Auxe zion: "*España'n euskotarran arazo politikua Frantzia'n baiño askoz tirabiratsua goa da. Peninsulako beste erriekin ez ditu lotzen ez abendak, ez izkuntzak, ez izakerak, ez oiturak, ez legeak. Ez diote Estaduaren ibillera politikuari jarraitzen. Garaituak (... indarrez!) foruekin kendu zaizkie saldadutza ta zerga bereizkuntza*".

Agian, *len baiño espñaieragoak ote dira? Su azpian geratutako illinti ta errautsak ezer onik ekarri ote dezaioke Espñaier?* Alako batean ez ote dute lapurtu zaien askatasun betera joko?

EGAÑA'tar GOTZON'ek

ZAPALKUNTZA

GURE ELEIZEA

Idazkiñaren aurrean jesarten naz, gure eleizearen edes-tiari buruz gogoeta bat egiteko asmoz eta asteko gara mugatu daidan.

Gure eleizea diñodanean, gaur Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban bizi dana dot gogoan eta aldiari begiratu azke-ro 36'ko guda-aurretixuan asi eta gaur arte luzatzen dana.

Isillean gordeta dagozan eta jakin-bearrekoak diran gauza batzuk be agertuko dodaz.

GASTEIZ'KO SEMINIARIO **BARRIA**

Santu izan-bearrekoak dan Asua ta Mendia'tar Pedro abade-arkitektoak irudi eder baten bidez seminario gogoangarri bat egin eban eta 1926n.urte inguruan asi eban onek beronen bide labur eta latza, bizia eta argia. Ortxe sortu zan laster Gasteiz'ko abade-eragintza edo "movimiento sacerdotal".

Guda-aurrean, eragin ori sortu baiño lenago, bai abade-arloan eta bai euskal-kultura arloan gauza aundiak egin ziran. Ekintza guztiak aitatzea luzea litzaken lez, izen ospetsu batzuk gogoratuko doguz: Manuel Lekuona ta Kardaberaz bazkuna, Jose Migel Barandiaran, Leonzio Arabiotorre, Justo Eguren...

Ain gauza aundiak egin ziralako, laster etorri zan jasarpena: Erkal edo Errepublikan-aldian, lenengoz, Mateo Mujika gure Gotzaiña erbestera bialdu eben.

Eta gero guda etorri zan: Seminarioa gaiso-etxe biurtu zan, abadegai asko gudara joan ziran eta beste batzuk Logroño'ko Seminarioan egin eben ikasurte bat.

Guda amaitu zanean, Aldabalde'tar Rufino arduradun zala, Bergara'ko Seminarioan batu ziran mendietan guda egiten ibillitako abade-gaiak. An agertu zan lenegoz esaldi ospetsua: "Abade baiño ez, beti abade, danean abade". Pozik entzun eben gudan ibillitako abadegai areik dei ori eta guztiak geratu ziran. Ez zan ain erreza! Guda galdu ebenak eta irabazleak gaiñean eukiko ebezan ikasleak izango ziran. Eta gaiñeko oneik amasei abade il ebezala ezin aitzu.

Mateo Muxika gotzaiña barrero enbesteratu eben. Bere izena be ez zan aitatzen.

GUDAREN ONDORENAKAZ

Gudaren ostean artu eban benetako idarra abade-eragintza edo "movimiento sacerdotal" arek. Eta zelako inda-ira artu be! Inguruetakoko seminario guztiak Gasteiz'koaren ereduari begira egozan.

Eragintza orren aurrean iru abade batez be ikusten doguz: Rufiño Aldabalde, Joakin Goikoetxeandia eta Benantzio Izeta. Beste Lazpita bat, mixiolari izan nai ebalakao josulagunetara sartu zan, eta Ramon Etxebarria be taldekoa zan.

Asieran Aldabalde izan zan eragiñik aundiena emon ebana: Paris'en Berulle'ren jarraitzaille ziran Prado'ko abadeakandik ikasi eban asko.

Ona emen abade-eragintza orren izaera bereizi batzuk: Politikatik urrin, euskal-kulturatik urrin, abadetzatik ur, gogo-jardunetarik ur.

Zer zan politikatik urrin egotea? Euskal abertzale ez izatea. Eta Lauzirika Gotzaiñak argi esaten eban: Ez sartu politikara! Izan benetako abade! Eta ori esaten Españako banderearen ondoan eta Franco'ren eta Jose Antonio'ren irudipean egoan.

Eta Euskal-kulturaren arloan, sekula ez gendun entzun berba bat euskeraz, sekula be ez gure edestiko barri bat. Ikasurtea amaitzen zan egunean eta etxera urteterakoan baten batek "Agur Jesus'en ama" abestia asten eban, urte guztiko abesti bakarra euskeraz.

Seminarioaren zuzendaria zurra zan. Berba gitxikoa. Eta orrelan oreka au zaindu al izan eban. Ugalde'tar Felipe'k atera eban aurrera Seminarioa urte latz areitan.

Abade eragintza onek gogo-jardunak eukazan erria federatzeko bide bat lez. Aldabalde'k artu eban bide ori eta giro orretan sortu ebazan Bilbao'n, Donostian eta Gasteiz'en iru gogo-jardunetarako etxe eta inguru orretan abade talde ederra. Izen batzuk: Angel Morta gero Madri'en Gotzain Laguntzaille izana, Antonio Oiarzabal, Jesus Garai eta Goikoetxeandia bera. Etxe orreik parrokiakaz artu-emon estuak eukezan.

Giro orretatik urten eban Misiñoi-arloko indar barri batek eta or sortu zan Eleizbarrutiko Misiñoien eragin aundia. Eta bertoko gizartelaren artean bi aitatuko doguz: Somorrosto'ko Eskolea, Martzelo Gangoiti'k irasia eta Arrasate'ko Alkargoen eragin aundia, Arizmendi-Arrieta abadeak sortua.

AURKALARIAK

Or daukagu gure eleizbarruti osoa lanerako tente, bizi eta sendo, itxasoan doan ontzi aundi baten antzera, baiña laster asiko dira erasoak ontzi eder ori urperatzeko.

Lenengo eraso, isillean, gogo-jardunari egin jaken eta orretan josulagunak izan ziran arerio: Gure Aldabalde abadea salatu eben "iluminista" lez, Tedeschini Nuntzioaren aurrean eta onek Lauzirika gotzain-ordeari kontuz ibilteko eskaria egin eutson. Lauzirika jauna, "bigunakaz gogorra eta gogorrekaz biguna", laster bigundu zan eta Aldabalde abadeari ukatu egin eutson eskiñitako dirulaguntza Gasteiz'ko gogo-jardun-etxea, erdi-egiña, ordaintzeko. Arrezkero Ballester eta Morzillo gotzaiñak dar-dar egozan Nuntzioaren aurrean. Ederto agertzen dau arazo au Javierre idazleak Rufino Aldalderi buruz idatzi dauan liburuan.

Baiña Gasteiz'ko Eleizbarrutia eta batez be bertako Seminarioa oraindiño sendo egozan. Ez luzaroko.

Karmelo Ballester Gotzain izendatu ebenean, Franco'ren agintariakandik eta Nuntzoagandik eginkizun aundi bat onartuta izendatu eben: Gasteiz'ko Eleizbarrutia iru zati egiteko zeregiña. Eta lortu be egin eban zeregin ori: Bere ondoren iru gotzain (bat be ez euskalduna) eta iru eleizbarruti itzi ebazan. Eta seminarioa be iru zati

eginda. Iru seminarioak ariñeketan asiak, makalak ziran eta irurak jausi ziran gaur dagozan egoera larria eldu arte. Orra or dana apurtuta! Eta gauzea argi geratu da; ten, iru eleizbarrutiak goi-eleizbarruti bitan bananduta: Pamplona-Burgos. Zelako sarraskia! Deabrua ibilli dala or dirudi! (Ikusi Nuñez Uribe'ren lliburua: Joakin Gikoetxeandia).

Gero Gurpide gotzaiña bialdu euskuen Bilbao'ra. Etorri zanean oraindiño arri bat arri-gaiñean ba'egoan, oñek alboratu eban: "Neurrira eltzen ez zan gotzaiña, txikia" zan.

Aldi orretan 1968n.urte ospetsuaren inguruan, abadeen eta laikoen iraultza sortu zan. Laikoak eskari baragarriak egiten ebezan: Sendiak apurtu ta desagertu, Eleizea aitzu eta antxiñako euskal-federa biurtu, euskera barri bat sortu lengoaren aurka... eta orra sartu ziran ezkerreko gure fededun asko. Gaur jokabide lotsagarri ori asko isildu da. Eta abadeen iraultza gogorra izan zan, azkenek Zamora'ko abade-espetsuaren ekintza bildurgarrian amaitzeko, eundak asko abadek euren abadetza itzi ondoren. Sarraski aundiagorik!

Eta oraindiño bizi da gure eleizea. Ez ondo! Baiña bizi da!

Olazar'tar Martin'ek

ERRAMUYEN MUGAK

Txitean-pitean azaldu daroa Erramun Gerrikagoitiak lexikoaren ganean dauan eritxia egunkari euskaldunetan. Sarri be sarri, beraren teoriak indartutako edo, Europako izkuntza batzuen adibideak ekarten deuskuz gogora, artean, aleman izkuntzearenak be.

Izkuntza orreri jagokonez, baina, askotan oker ibilten da. Azkenengo idatzian, beraren teoriori euskteko edo, "Justizia Mugagabea" (*Operation Infinite Justice*) erabilteari gatx eritxi eutson, alemanez be, "infiniC berbea erabilten dalakoan.

Emon dau, berba ori nonon ikusi eta, alantxe, oikotzat artu dauala, benetakoa danik jakin barik.

Izan be, egia guztiz bestelakoa da. Alemania zein Austriako edozein egunkari, aldizkari, telebisino edo irrati katetan ez dabe besterik erabilten izan "Aktion unendliche Gerechtigkeit" dalakoa baino, asikeratan, batzuetan, "Aktion grenzenlose Gerechtigkeit" be entzun eta ikusi izan bada. Berba bitzuok artez-artezean itzulita: *umendlich* = amaiezin eta *grenzenlos* = mugabako, bitzuen esangurea alemanez da inglesezko, "infinite".

Alemanez, ganera, matematikako, "*unendlich*" esaten da, "*o*" *null* esaten daben antzera. Kaleko izkuntzan be ez dabe besterik erabilten edo ulertuten.

Alandaze, Erramun or oker.

Okerrak oker eta artezak artez, ez deritxot, ganera, bape ondo arlo onetan beti irainka edo inor baragarri izten ibilteari (chorradak, papistak, redentoreok), norberak norberaren mugak non dagozan jakin ez dauala.

Iniaki MARTIARTU

LEGE ZARRA KENTZEN

(1839-1876)

2.' MARIA KRISTINA ERREGE-ORDE (1839-1840)

Bergara'ko besarkadea derritxona egin zanean, Maroto Murtziarra alde batetik karlisten izenean eta Espartero liberala bestetik, Euskaldunen alde egozan karlistai iruzurera egin jaken: Espartero'k bere ezpataz lege zarra aldezteko berbea emon eban, baiña España'ko Laterri-legea edo "Konstituzioa"ren aurka ez dagoan neurrian. Bergara'ko mendietan ebiltzan Karlista euskaldunak euren izkiliuak emon ebezan eta euren gudalburuak aintzat artzeko berbea be emon eutsen Espartero'k.

Sustrai orretan oiñarritzen dira urte aretatik aurrera izango diran eztabaida ta gorabera guztiak: Zer dago eta zer ez Laterri-legearen aurka?

Egoera ori ta ondorenak azaltzeko iru urrats emongo doguz: Lenengo Maria Kristiña errege-orde izan zanekoa. Bigarren Espartero'ren Erregeordetza eta irugarren II Isabel erregeinearen aldia. Gero ondoren batzuk gogoratu barko dira.

Guda amaitu eta laster alkartu ziran iru aldundik (Bizkaikoa, Gipuzkoakoa ta Arabakoa). 1840n.urteko urrillaren 25n.egunean.

Alkartu ziran guztien ustez, bear-bearreko gauzea zan lege zarra osorik zaintzea. Orretako Euskalerrri osoa batera dagoala diñoe eta ez dagoala beste biderik bakea ta aurrerapena lortzeko eta kalte auñdiak alboratzeko.

Bigarren batzar bat egin eben Azpeitian, jorraillaren 10n.egunean:Olano'tar Balendin'ek ekarri ebazan Parlamentuko eta Gobernuko barriak. Ez eban ikusten beste biderik, Laterri-legearen erara Lege Zarra aldatzea baiño. Aldun giputzak ori onartu eben. Bizkaiko Loizaga'ren ustez, ez egoan lege-zarrean ezer aldatu-bearrik. Ez zan ba erabagirik artu eta Madril'ek zer egiten dauan itzaroteko geratu ziran, Baiña gobernuak ez eban ezer egiten. Lenengo bideratu bear zan gaia, udalbatzak zelan aukerau zan eta Zuzenbideko Ministroak ez eban baimenik emon autaketa egiteko.

Ori ezin zala ikusi ebenean, epailarien arazora sartu ziran bizkaian: Epailari foru-bidekoak ala Laterri-bidekoak ziran benetakoak eta korrexidoreak ete eukan arlo onetan eskubiderik. Españatik gogor egiten eben Korrexidorea agitari-maillakoa izanik ezin zeitekela izan epailari.

Aldun euskaldunak naparrakaz batzarra be egin eben baiña ez ziran eldu alkartasunera. Naparrak euren legea nai eben eta Españara sartzeko errezagoa ei zan gurea baiño.

Aduanen arloa zan beste gai bat. Madrid'en aduanak itxas-ertzean nai ebezan orrelan bizkaitarrak españatarren legepean geratu daitezcan; bizkaitarrak, ostera, aduanak Ebro-ibaiaren ondoan Balmasedan eta Orduñan nai ebezan, saldu-erosirako beti izan eben askatasuna eukiteko. Emen be naparrak gertu egozan aduanak Auñamendin

ipinteko. Naparren eta Españatarren arteko alkartasuna 1841n.urteko dagonillaren 16n.egunean izenpetu zan euskaldunakandik berezizuta.

Uztaillaren asieran aldun euskaldunak zergen arazoa agertu eben: Naparroari eta Euskadiri kupoa ezarri eutsen eta Aldundiak geratu ziran zergak batzeko. Bizkaiko aldunak, Egaña buru zala, Españako sarreren zerrendatik Bizkaia kentzea eskatu eben.

Errez ikusten da ba, Bergara'ko besarkadan gauzea ez zala bideratu eta liberalen guraria Bizkaia, Gipuzkoa ta Araba España-barrura beste errialde batzuren antzera sartzekoa zala.

Olazar'tar Martin'ek

TRIKITIXA BERBEA DALA ETA

•
fif# Urteak emon dodaz "trikiti(x)a" eta "trikitolari" berbak entzuten. Erabili be, gure zaarrak ez dabez inoz berba orreik erabili. Berba barriak dira izan. Antza, gerra osteko Zumarragako soinuakole zaarren bat asi ei zan beraren buruari "Zumarragako Trikitia" ezizena esaten eta ortik sortua dalakoa daukat berba ori, arek berarentzako asmauta.

Gerra osteko unekada baten soinu andia (kromatikoa) zabalago ibili zan gure artean. Azkenengo 30tazak urteotan, ostera, SOINU TXIKIAK (diatonikoa) indar andiagooa irabazi dau andiaren aldean. Sasoi orretan zabaldu dira sano "trikiti(x)a" eta "trikitolari" berbak gure Errian.

Alan bada, gaurko gazteak eta ain gazteak ez diran batzuk be musika tresnari "trikiti(x)a" esaten deutsoe. Baina jakin beie, batzuk eta besteak, musika tresna orreri Bizkaitik Euskalerrian sartu zanetik eta gerra ostera arte, beti, Bizkaia zein Gipuzkoan, SOINU TXIKIA esaten izan jakona. Ganera, tresna ori eskuetan darabilenari SOINUJOLEA eta ondoan orreri lagunduten deutsonari PANDEROJOLEA esaten izan jake beti. Orretan, gaur egun, Bizkaiko eta Gipuzkoako solnulari, panderojole zein neu lango soinuazale asko, zaarrenak batez be, bat gatoz.

Sarritan be entzun dot, "trikiti(x)a" izeneko musikea edota jantzea jo bear dabela eta ez dabela... Ori izenori oraindinokarren barriagooa da, asmakeria. Gure artean orrek beti ASTIROKOA izena eukiten izan dau-eta. Beste izen batzuk be ibili dira gure zaarren agoetan: **ZABALETAKOA**, **ARONAKOA**, **JOTEA**, **BIZKAI-DANTZA** (Gipuzkoan)...

Gure tradizioa ori izan da eta ez dot uste orrek zaku zaarrean aaztuta lotu bear dauanik, bestetara baino. Tradizioaren zati ori berak merezitako lekura atzera ekarteko eskatu gure dot. Eutsi daiogun bada gogor!

Kontxabale - Bermeo

BIZKAIKO EUSKEREAA ZUZENTZEN

9.- NEBA-ARREBAK / ANAI-ARREBAK

Beste leku baten esan dogu sendi-giroko izenak geiago dira- la euskeraz gaztelera baino. Eta an aitak/gurasoak itz bikotea aztertu gendun. Orain sandiko beste itz bikote bat aztertuko dogu: "Anai-arrebak/neba-arrebak".

Itzaldi bat asten danean esaten diran berbak dira. Orregaitik zuzen dagozan ala ez jakiteko, itz egiten dauana nor dan artu bear da kontuan: Gizonezko batek itz egiten dauanean, "anai-arrebok" esango dau, baiña andrazko bat danean? "Neba-aiztok" izan bear leuke, baiña au ez da iñoz entzuten, bear ba'da orain-arte andrazkoak gitxitan berba egin dabelako erri-aurrean. Baiña beste batzutan norberaganako begirada barik egiten da berba, eta orduan "neba-arrebak" esan bear da, esaterako "guztiok gara gizakiak eta geure artean neba-arrebak" itzaldietan "jaun andreok" be erabiltzen da.

Gaztelera beti esaten da "hermanos". Nondik dator ba, euskerearen ugaritasun au? Gure sendi-izenak geiago diralako. Erderazko "hermano" esateko itz bi daukaguz: "nebea" neskearen aldetik eta "anaia" mutillaren aldetik. Eta askorengoa erabiltzen dogunean erderazko "hermanos" izan leiteke "nebak" neskeak ba'diño, "anaiak" mutillak ba'diño edo bietarikoak ba'dagoz taldean, mutillak "anai-arrebak" esango dau eta neskeak "aiztanebak" (esan dogu au ez dala entzuten).

Dana errezuteko bide bat dago: Erderazko "hermanos" erabiltzen dan lekuan euskeraz "senideok" erabili.

10.- GIZONAK/GIZAKIAK

Idazleak beti izaten dauz zalantzak bere idazkerea zuzena ete dan ala ez. Eta euskeraz zalantza oneik sarrigotan etorten dira. Auxe da gaur aztertuko doguna: Erderaz au esan lei: "Los hombres llevan viviendo sobre la tierra dos millones de años". Erderazko "los hombres" ori ez da zuzena. Guk itaun aun egin geinke: ¿Y las mujeres? Baiña oraintsura arte erderaz "los hombres" esanda or sartzen ziran emakumeak. Orain asi dira zalantzak eukiten eurak be.

Euskeraz esaten ba'dot: "Gizonak lur-gaiñean milloi bi urte daroaz" "gizonak" itz ori ez dala egokia dator burura. "Andragizonak" izan bear leuke. Ala gizonemakumeak! Au ez. Au luzeegia da eta gaiñera "emakumeak" itza be ez da egokia: Gizonak be "emakumeak", emearen umeak dira.

Aukera bat artu bear da eta nik gizonetzkoak eta andrazkoak batera artzeko "gizakia" aukeratuko neuke eta orrelan geratuko litzake esaldi osoa: "Gizakiak lur-gaiñean dirala, milloi bi urte dira".

11.- IL/ERAIL

Euskereak atzizki edo sufijo asko dauko, orretan oso aberatza da, erderean baino aberatsagoa, baiña aurrizki edo prefijoz, erderean da aberatsagoa. Euskereak oso gitxi ditu, bi edo iru. Baiña euskereak tartizkiak edo infijoak be ba-daukoz eta onein artean adizkia da bat: —ra—. Tartizki au aditzaren barruan sartzen da eta esangura barria damotso. Esaterako: Egin/eragin,

joan/eroan; ekarri/erakarri, ibilli/erabilli, ikusi/erakutsi, ikasi/irakatsi... Oneitariko bat dakargu oraingo onetan, gitxi erabiltzen dan arren asko erabilli bearrekoa: Il/erail.

"il" aditza igarokorra naiz igarokaitza izan leiteke: "Gizona il da" "katua il dot". Baiña erderazko "matar" esateko ez dauka- gu euskeraz itz egokirik, au be il esaten da: "Oillo bi ii dodaz" edo "Bikotxak" torre-etxeetan 6.000 il dabez" naiz "6000 il dauz Bin Laden'ek".

Au da nik gaur egingo neuken esondapena: "ii" beti erabilli "morir" naiz "matar" esateko, baiña beste notin bat ilten danean beti esan "erail": "Ipar-Ameriketan gizakiak tximist-indarrezko aurkian erailten dabez" edo "gudan arerioak erailten dira" edo "Kepak beronen anaia erail dau". "Erail" itz au egokiena litzake "asesinar" edo "ajusticiar" esateko.

12.- BAKARRIK NOZ?

Izkuntza guztiak daukez maillekoak edo "prestamo" diran itzak. Euskereak be asko ditu: "Sustratoa" euskerearen azpian egoan izkuntzatik artzen danean, "adstratoa" alboan dagoan izkuntzatik artzen danean eta "superestratoa" gaiñean dagoan izkuntzatik artzen danean. Eta ez itzak beste barik, esaldi-jatorrak edo modismoak be bai sarritan. Esareako, aditz laguntzaillea erabilteko oitura ain zabala, latera edo latin deritxon adstratotik artua ei da. Gaur "maitatu dot" esaten dogu, baiña latiñaren eragiñez, "amatun habeo". Orrelan ba. euskeraz jatorra "dakust" litzake eta latiñaren eragiña "ikusten dot".

Baiña goazen gaurko arira: Zer esan gura gau "ogei gizon bakarrik etorri ziran?" Ogei ba'ziran ez egozan bakarrik. Obeto esana litzake: "ogei gizon baino ez ziran etorri".

Aurau lez au ezarri daigun: Erderazko "solo" edo "solamente" adierazteko, euskeraz eta be dagoz: bata "baino ez" eta bestea "bakarrik". Azkenengo au bat danean erabilli bear da. Adibideak: "Que vengan solamente los hombres". Ez: "gizonak bakarrik datozela". Bai: "Gizonak baino ez daitezela etorri". Ez: "erdia bakarrik jan dot". Bai: "Erdia baino ez dot jan". Bai: "Datozenak, bakarrik etorri daitezela, ez lagunakaz". Ez: "Nik eun pezeta bakarrik daukadaz". Bai: "Nik eun pezeta baino ez daukadaz".

Ez: "eta ez itzak bakarrik" Bai: "Eta ez itzak beste barik".

Olazar tar Martinek



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

2001 URTEKO EKINTZAK

GABON JAUN-ANDREOK

Bagoaz millurteko asierak aletzen, eta beti lez, oiko Batzar Nagusia ospatzean, igarotako urtearen ekintzen gora-beerak emoteko eretia etorri yaku. Asi naieten ba, zuek eza-gutu dagizuen igazko ekintzarik garrantzitsuenak azaltzen.

EUSKAL IKASTAROA

Badarraigu euskal ikastaroak beti lez gure etxean egiten. Eta aurten esan dagikegu ikastaroak betiko arrakastaz asi dirala. "Euskerazaleak" asi zanetik ona, millaka ta millaka ikasle igaro dira euskera ikasteko, eta beste ekin-tzen artean, onek poztasunez beteten gaitu, gure bizkaie-rea ain zapalduta dagoanean batez be.

EUSKAL ASTEA

Azaroaren azken astean gure etxean izan genduan oikoa dan ospakizun au. urrengoko izlariakaz:

Olazar tar Martin: Lege Zarraren berezitasunak.

Atutxa'tar Paul: Globalizaziñoari buruz.

Zubiri'tar Iñaki: "Amesen ildotik" Olerki-txortaren azalpena.

Legarreta'tar Asier Bertsolaritzaren gora-beerak.

Murua'tar Iose Mari: Orixe'ren "Euskaldunak" lanari buruzkoa.

Entzule ugari etorri ziran itzaldiak entzutera.

IPUIN SARIKETA

Aurten be ipuin-txorta ona artu dogu sariketa onetara-ko. eta euren artean lan onak artu doguz. Gure asmo garrantzitsua da, ipuin sortzailleak ugaritu daitezela, eta elerti sail onetan irakurleen artean zaletasuna sortu daiten.

Ona emen, saridunen zerrendea:

Euskerazaleak

Ipuin-sariketa 2001

LENENGO SARIA.....MURUA ta GOÑI'tar Iose M.º

BIGARREN SARIA ARRINDA'tar ANES

IRUGARREN SARIA GOIKOETXEA'tar Iñaki

LAUGARREN SARIA ...AURRE APRAIZ'tar Balendin

BOSTGARREN SARIA LEGARRETA'tar Asier

BILBAO'n, 2002n.urteko urterilllean

APAI-MAIKOAK

EGUTEGIA

Urte asko dira etenbarik urtero-urtero ataratzen dogu-
la gure egutegi au, bazkidetalde batek atonduta, eta
BBK'ren diru laguntzaz. Guretzat oso pozgarria da jaki-
tea, egunero euskal etxeetan badabela, laburra ba'da be,
egunero irakur-gai bat, eta ori ezpaibarik euskeraz irakur-
teko zabalkunde eragingarria da.

Egutegi onen bateratze-lana, Olazar'tar Martin'en
ardurapean dago.

NORBERAK EZ ELUSKIO EGIN BEAR BESTE BATERI, NORBERARENTZAT MINGARRI DANIK. ORI DA GURE ERLEJIÑOAREN MUIÑA.

INDIA'KO "MAHABARATA" LIBURUAK

ZER ALDIZKARIA

Argigaratzen jarraitu dogu bizkaieraz agertzen dan
aldizkari bakarra, eta onek poztuten gaitu benetan,
batez be bizkaiera ain txokoratua danean "El Batua"ren
aginduz. Badira ogei ta bost urte baiño luzeago, biz-
kaiereari egiten yakon zuzenbagekeria salatzen diardu-
gula, baiña orain arte ez dogu arrakasta andirik lortu.
Badirudi, bizkaitarrak lotan dagozala, edo-ta euren eus-
kereak ez dautsela ardurarik emoten. Gure anaiak itxar-
tuko ba'litzaz, beste kuku batek joko leuskigu, eta gure
negarrak amaituko.

Edozelan be, gauzak orain arte lez jarraitzekotan, gure
salaketak ez dira amaituko. Izan be, euskal arloan biz-
kaierrea %40 danean, sanedrin batek eriotzera joan daitela
agintzen dauanean, burubagekeririk andiena da. Genozi-
dio izugarria.

ZORIONTSUA IZATEKO BESTE BATZUK IRAINTZEN DAUZANA, ONEIK **BE** ZORIONTASUNAREN BILLA DABILTZANEAN, ORI EZ DA SEKULA IZANGO ZORIONEKOA.

BUDA'K

Au dala-ta, gure asmoan jaraitzeko oso onuragarria da
lanak ugaritu daitezela, eta augaitik gure idazleai lanak
bialtzen jarraitu dagiela eskatzen dautset.

LAGUNTZAK

Gure asmoak aurrera eroateko bearrekoa da diruaren-
laguntza, eta augaitik eskerrak emoten dautseguz Biz-
kai'ko Aldundiari, BBK'ri, eta Bilbao'ko Udalari emoten
dauskuen laguntzakaitik. Edozelan be eralguntzak urte-
rik-urte gora egiten dabe, eta augaitik gure bazkideen
diru-laguntza utzi-eziña yaku.

Zubiri'tar Iñaki'k

ABIZENAK

AGARRE: Ona emen oso zabal dabillen abizena, baiña aldakuntza batzukaz: "Agirre", "Agerre". Erri askotan dago olako izena dauan etxeren bat.

Adierazpena: Batzuk abereentzat barrutia dala diñoe, beste batzuk agirian dagoana.

"Agarretxu" ta "Agirretxu" be ba-dagoz. "Agarrebarri" be bai. Guztiak dira abaro-lekua.

AGINAGA (Ondarribia -1663): Gipuzkoan dago geien, baiña Bizkaian be entzuten da. "Agiña" zugatz bat da eta "Aginaga" zugatza dagon tokia.

Ortik etorria da "Aginagalde" eta agina dagozan lekuaren ondoan esan nai dau.

AIZPURU(A) (Zumarraga -1383): Aitzaren gainean dagoan etxea da eta, abizen lez, Bizkaian eta Gipuzkoan entzuten da.

ALBERDI (Azkoitia -1667): Gipuzkoan dabil zabal len eta "arbela" aitz edo arri-mota bat dan ezkerero, abizen onek arbel asko dagon lekua esan gura dau.

ALBIZU "SU" (Lazkano-1339): Albia bedar legortua da eta abizenak bedar legortu asko dagon tokia esan nai dau.

ALBIZURI (Azkoitia -1484): Gipuzkoatik zabaldu da abizen au eta bedar sikatua (albi) dagon lekua esan nai dau.

ALZIBAR (Donosti-1632): Azpeitian eta Gipuzkoa'ko beste erri askotan zabaldua da eta itz bi daroaz alkartuta abizen eder onek: altza (errekondoetako zugatza) eta ibar edo bizileku ona dan Jaun-unea, altzak dagozen ibarra.

ALDEKOA (Elorrio -1575): Bizkaian dabil zabal len baiña beste eskualde batzutan be bai.

"Aldatik etorria izan ezkerero, aldapan dagoana litzake baiña "alde"tik etorria izan ezkerero, "albokoa" esan nai dau.

ALEGRIA (Tolosa-1798): Egoaldeko lau eskualdeetan ugari agiri da eta erriak be ba-daroe izen ori, jatorriz "alegia".

"Ale" bedar mota bat da eta "egia" toki bat.

ALMANDOZ: Naparroako Baztan'en dau bere jatorria.

"Albi" da izena eta bedar zikatua esan nai dau. Gero atzizki bi: "an" eta "doz". Azkenengo au ez da besterik abizenen azkena baiña.

ALTUNA (Urretxua-1624) (Altonaga): Gipuzkoan dago geiago Bizkaian baiño eta ezkiak edo "alamoak" dagozan lekua esan gura dau.

ALZAGA (Aramayona -1666): Bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan toki askotan daukagu abizen au.

Altza edo "aliso" dagoan tokia esan gura dau eta azkeneko -aga indarra emoteko artzen dan atzizkia baiño ez da.

ALZOLA (Azpeitia -1501): Elgoibar'en dago izen au dauan auzo bat eta abizen lez zabal dago.

Altza da alde batetik eta bestetik ugaritasuna adierazten dauan -ola atzizkia. "Ola" Aurretik doanean burdiña egiteko edo lantzeko tokia da, baiña atzetik doanean ugaritasuna: "Uriola, Egurrola".

AMEZAGA (Eibar-1636): Araban dago erri bat izen au daroana eta Bizkaian etxe batzuk, bat Mungian.

Ametza zetagaz aritz-antzeko zugatza da eta esegaz lotan egiten dana edo oso atsegingarria dana: "Gure ametsa".

Ametzaga ametza edo aritz-antzeko "kejigo" dagon lekua da. "-aga" atzizkia indartzaille.

AMUTXATEGI (Motriko -1750): Au be ametza'tik dator eta aritz-antzeko kejigo asko dagon lekua esan gura dau.

ANABITARTE: Gipuzkoan geien. "Ana" abereentzat barrutia da eta olako biren ardian dagoan etxea "Anabitar-te". Ortik abizena.

ANASAGASTI (Oñate 1477): Bermeo-inguruan ugari abizen au.

"Ana" abereentzat barrutia da eta "Sagasti" sagardia.

ANTXIETA (Urretxua, 1648): Gipuzkoako erri askotan eta Elorrion dago izen au.

"Antxi" landara bat da eta azkeneko "-eta"k ugaritasuna dago.

Olazar'tar Martin

ORIXE-REN EUSKALDUNAK

Gaur emen nire gogoia izango litzateke, Bilbao'n nagoenez gero, nire adierazpenak zuei bizkaieraz egitea. Lotura aundi bat badut gaiñera Bizkaia-kin, 41 urteko uztarketa, nire emaztea Iurretakoa bait da. Ala ere eziñezkoa zait itxura on batean bizkaieraz jardutea.

Bein batean Zornotza'n giñen Euskerazaintza"koak, Santi Onaindia aundiari omenaldia eskaintzen. Eta jaun bat urbidu zitzaidan esanez: "- Zu nor zara?.- Ni euskaltzale ez ezagun bat", esan nion. "Ementxe nabil Euskerazaintza'koei laguntzen. Joxemari Murua det izena." Eta orduan jaun orrek:"- Bai, zure lanen bat, irakurria dot, aldizkarian, bizkaiera antzeko batean, edo. Eta berealaxe gogoratu zitzaidan, nola bein batez, Euskerazaintza'ren aldizkarian, bizkaieraz zerbait idatzia nuela. Jaun orrek esan zidana kontuan arturik, orduz gero, nire erabakia, obetoxeago menderatzen dudana euskaltzale idaztearena izan zen.. Aita gipuzkoarra nuen, eta ama naparra. Emaztea Bizkaikoa. Eta gure etxean iru eratara itz egin izan dugu euskera, eta or" DET, DUT eta DOT" elkarri lotuta erabilli izan dira. Itz egiterakoan aitarena erabiltzen det, eta idazterakoan amarena. Orre-gatik nire lantxo onetan "DUT" erabilliko dut. Eta "zen" zuen" e.a. Etxean gure amari ikasitakoa, alegia, esan bezala.

"Orixe'ren euskaldunak" gaiari elduta, arteko aurrena esan bear dizuet, nire lantxo au ez dela "Euskaldunak" poema liburuaren azterlana. Gunea liburu orretan azaltzen diren norkien aipamena besterik ez da izango. Bide hatez, jakintsu baten iritzia, tarteka, jasotze,n badut ere.

Euskaltzale guztiok badakigu nor izan zen "Orixe". NIKOLAS ORMAETXEA. Gipuzkoa-n, Oresa-ko Iriarte etxean, jaioa, 1888ko Abenduaren 6ean. Jaio berritan Uitziko Errekalde baserrira eraman zuten azitzera. Eta esaten digute: iruxkia izanik, amak bi titi besterik ez, eta iñudearengana. Eta antxe biotz zabalez artu ornen zuten, batik bat Asuntxi amandreak. Eta orrelaxe Errekalde baserrian. azi eta ezi, amazpi urte bete zituen arte.

Gero ikasketak Jesuitetan egin zituen, Xabier, Loiola, Oña,Tudela eta Comillas-en. Euskal idazle, poeta eta itzultzaile. Euskalki guztiak menderatzen zituen. Euskaltzaindi-koa, Resurrección M^a de Azkue leendakari zelarik. Azken arnasa Añorga-n, Donostia-n, eman zuen, 196leko Abenduaren 9an, bere illoba Joxemari Aranalde, apaiz euskaltzale jakintsuaren besoak, laguntzen zio-telarik

Bere lanetako, batzuk aizpatzeko:

Santa Kruz Apaiza (1929), Mireio (1930), Tormes-ko Itsu-mutilla (1929), Barne Muiñetan (1934), Euskaldunak (1936), Urte Guziko Meza Bezperak (1949), San Agustin-en Aitorkizunak (1956), Kiton-n Arrebarekin (1951), Jainkoaren Billa. (1954), Eta beste ainbat lan, " Eusko Gogoia, Karmel, Jesusen Biotzaren Deia, Euskera RIEV, Argia, Euskadi, Egan, Yakin", aldizkari eta egunkarietan, e.a.

Esan dudana bezala, lerro gutxi auetan ez natorkizue Orixe azaltzera. Ni ezer gutxi naiz sakontasun orretan sartzeko. Badira liburu egokiak luze, zabal eta sakon Orixe-ren berri jakin nai duenarentzako. Batzuk aipa ditzadan:

—Santi Onaindia-k: "Euskal Literatura IV"

—Enrike Zabala-k: Euskal Alfabetatzeko Literatura"

—Juan San Martine-k: Escritores Euskericos".

—Luis M. Mujika-k: "Orixe-ren Aportazio Literarioak"

—Paulo Iztueta-ren ikerketa sakona

—Koldo Mitxelena: "Idazlan Hautatuak"

—Euskaltzaindiaren ardurapean: "Orixe Omenaldi-1965"

—"Zer dugu Orixe-ren alde" Zer dugu Orixe-ren kontra" Joxe Azurmendi-renak.

(ETBn. maai inguru batean argitu zuen, berak ez daukala ezer kontra. Ori lan bat izan zela, eta ez bi, baiñan bi liburutan argitaratu zela; eta izen buruak ez direla bereak)

- Eta batez ere, Joxe Mari Aranalde, bere illobak, idatzitakoak eta esandakoak kontuan izan bear. ETBn leen aipatutako maai inguruan Azurmendi-k zioen: "Askok ikasi dugu Orixe-rengandik". "Bai baiñan sintonizatzeko eta ikasteko, ik bezala, etxetik euskera daukana izan bear" Erantzun zion Aranalde-k. Eta emen bearrezkoa da esatea, orain ogeitamar urte inguru, euskaldun berri batzuk, ortxe ibilli zirela, zerbait egiten zutelakoan, lardaskan, Orixe ezabatu naiean.

Ori dela eta, Koldo Mitxelena, izkuntzalari jakintsuaren iritzia jasotzea oso egokia iruditu zait. Orra, asteko:

"Mitxelena-ren Idazlan Hautatuak" liburutik:

"Orixe ere joan zaigu. Zaratarik gabe, har izkutuaren antzera, azpilanean ari den denbora iheskorrak erauzi du gure artetik udaren erdian. Guztiok- ez jakinean edo jaki-

naren gainean- irakasle genduen galdu dugu guk eta zeukan haberik sendoetariko bat galdu du euskerak. Euskal literaturaren oroitzenak lurrean diraeino ez da noski itzaliko haren izena eta omena."

Berak zion miresgarritasuna ederki asko azaltzen digu.

Ain itz gutxitan, geiago, ain egoki esaterik ez dago.

Eta bazirudien Mitxelena jakintsuak Orixe-ren erioztzean esandakoarekin denok bat izango giñela. Eta ez zen orrelakorik gertatu. Eta tarte orretan euskeraren batasunaren munduan artu zen joera berrian batzuren arrazoi bakarra auxe izaten zen: "Mitxelena jaunak esan du". Baiña askotan gertatzen den bezala, Mitxelena-k esandako guztiak ez zituzten kontuan artzen. Eta Orixe-ri buruz ez zetozen bat Mitxelena jaunarekin "mitxelenezale batzuk". Cero orien euskera irakurri, eta Koldo Mitxelena-renarekin erkatu, eta tokitan gelditzen duk.....!!!!

Euskaltzaletasunaren munduak orain ogeitamar urte zatiketa aundi bat izan zuen. Aize berriak sortu ziren. "Poesia soziala" izenekoak indar artu zuen, eta batzuren jokaera. Orixe infernetara bidaltzea izan zen. Aresti santifikatzeko.

"ORIXE OMENALDI" liburutik. ATARIKOA L.M Mitxelena-k. Zati bat "(...)Ez nintzake, aatik, egiaren aldeko agertuko guztiok dakigun zerbait ixilduko baldin banu. Diodan, bada, labur bearrez, zerbait berri agertu dela gure artean gerra-ondoko urte oetan: Bestelako pentsabidea bestelako bizimoduaren eskutik, giro aldaera larria, erriko eta atzerriko aize berrien eragiñez (...)"

Eta onela jarraitzen du L.M. Mitxelenak, aipatutako "Orixe Omenaldi" liburuan: "Ez naiz ni emen mintzatu-ko ez giro-aldaera orren alde ez kontra. Gertatua da eta ezin —bestekoa, gertatua den ezker. Esan bearko dut, ordea, ortaz ari bait —gera, aldakuntza orrek— usteak, sinesteak eta ospeak astindu dituen balioen trukaera izanik- ez diola "Orixe"ri ere, ustez edozein eztabaidaren gaiñetik geneukan "Orixe"ri berari, begiramenik gorde. Guztion aitormenez irabazia zuen irakasletza eta gidaritza ukatu dio oraintsu batek baiño geiagok.(....)"

Beste zati batean. Mitxelena jakintsuak: "(...) Gure ondorengoek, orain pixkaren bat aazturik badaukate ere. aurkituko dute berriz egunen batean "Orixe", arri-menez eta espantuz. Gurasorik gabe mirariz jaioa balitz bezala, or bait dago gure aurrean ez oraingo, ez egungo eguneko, iñoizko aldi urren bateko seme dirudie-la.(....)"

ORDUAN, BATZUREN AOTIK ENTZUNDAKOA: "ORIXE-REN EUSKAL MUNDUA EZ DA BENETAKOA, SOZIAL ARAZOA EZ DU KONTUAN ARTU"

Eta Orixe-k "Euskaldunak" liburuaren itzaurrean onela dio:

"Au izan dut leen asmo: Nik moldatu dudana poema au, ERRIAK MOLDATUA litzan gisan egitea; nik egin ditudan bertsu ok, ERRIAK egin zezaken gisan egitea. Orta ez dezu gertakizun ontan maratil askorik billatu bear, ez naspil aundirik bereizi bear, ZENBAIT NOBELA TXARRETAN BEZALA. Ez da eriotzik eta beste gauza lazgaririk daramanetan bezala. ERRI bat bere oiko lanbidetan, jolasetan, ipuietan, bizian, eriotzean agertu nai nizuke, gauzak eskuarki edo komunzki gerta oi diranez"

Beste zati bat:

"Istoria bera ere, oraintsu arte gerra kontua besterik ez da izan. Egun, ordea, erri baten agirikoak oro sartzen ditugu istorian. Baita nik ere poema deritzadan ontan, istori zearo baitut egin, guzia toki batean eta mende batean, egiña litzan gisan." (..)MENDE ZAARRIK ERE ASMATU BEARRIK EZ; BIZIMODU ZAAR ONEN GEIENAREN LEKUKO NERAU IZAN BAIT NAIZ(...)" ERRI DAN BEZELAAZALTZEN SAIATU NAIZ. ZERTAKO NI ASMATZEN ASI T' EUNETATIK LAROGEITA AMABOST, GUTXIENIK, NEURE BEGIZ IKUSIAK, NEURE BELARRIZ ENTZUNAK, NIK JOSI TA MOLDATUAK ORDEA, BATASUNA AR DEZATEN(...)"

Gero onela jarraitzen du:

"EUSKALERRI OSOA DUT KANTA GAI, EZ BIKO BAT EDO BESTE"

Eta, orrekin Orixe-k zer esan nai ote du? Bere poeman euskal lurralde osoa sartzen duela ?.

LEEN ESAN DUDAN BEZALA, UITZI-n AZIA ETA EZIA IZANIK, UMETAN BIZITUTAKOA OSO BARNEAN ZEUKAN, GUZTIOK BEZALA, ETA NEURE USTE APALEZ, ORIXE-k AIPATUTAKO MUNDUAN, BASERRI GIRO ORRETAKO JENDEA ZUEN BARNE-BARNEAN, BATEZ ERE; ETA JENDE ORREK EUSKERA SOILLIK ERABILTZEN ZUEN: EZ BAIT ZEKIEN IÑONGO ERDERARIK, ETA EUSKERA ZUEN BENETAKO GAUR EGUN ESATEN DEN, IZKUNTZA NAZIONALA. BERAZ, ESAN DEZAKEGU ORIXE-rentzat, BERE POEMAN, NORKI ORIEK DIRELA EUSKALDUNAK. beste iñor ukatu gabe. Eta Uitz, Barakaldo eta Neguri-kin naastea ez dut uste bidezkoa denik.

Eta gure erri onen kultura osatzea eta izkuntza lantzea, guztioen lana da. Beraz, itxuragabea Orixe-k aipatzen duen munduari, "euskera urbanoa" eta Barakaldo-ko labe garaiak kontrajartzea. Euskal Erriko lurralde osoa bada-kigu oso ezberdiña dela, geologia aldetik, soziologia aldetik eta izkuntzaren aldetik.

EUSKAL ASTEA

Eta zenbaitzuren jokaera orain ogeritamar urte, leén-goaren apurtze lan bat besterik ez ote zen izan? "Euskera urbanoa" izen orrekin, sasi-euskera bat erabilliz, mailla obeagora iristen ez zirelako. Elizgizon askok euskeraren alde egindako lan ugaria eta sakona, ere, "klerikalismoaren zapalketa" izan zela, batzuren aotik entzuteko ere aukera izan genuen.. Kanta berriak sortu ziren, baiña aldi berean ere zaarren baztertze lan bat nabari zen. Orain zer da kontua eta: Ordungo kantari gazteek, burua zillar kolorez apainduta edo burusoil, eta azala zimurtuta, berea egiten jarraitzen dute, beste zaar batzuren malkoak lagun dituztelarik ``beren denbora ezin ohea" gogora datorkielarik. Ondo dago. besterena ukatu gabe ordea.

Austura eta apurtze lana aipatu dut leen. Orain ogeitamar urte euskera batuaren arazoa sortu zen. ORDUNGO BULTZAGILLEAK NEURRI AUNDI BATEAN, EUSKALDUN BERRIAK IZAN ZIREN. Lapurtera zaarra berpiztea nai zuten, tradizio literarioan erabillagoa izan zelako edo, eta ura aukeratu, euskera batua egiteko. Eta aldi berean, beste gaiñontzekoak, errian sustraitutako euskalkiak baztatu naiean ibilli ziren. Eta sustraizko euskera gaitzesteko, basarritarkeria, garo usaikoa, eta orrelako asko bota ziren erri-euskera baztatu nai orretan. Eta beren elburua lortzeko Orixe aundia ere oztopo zuten.

Denborak ere berea egiten du eta lapurtera zaararen teoria orrek porrot egin zuen. Azken urte auetan, batua izenarekin, gipuzkera nagusitu da (ETBn, Ikastoletan, gazetaritzan e.a.) eta joera orri euskera batua deitzen diote. Eta or ere dakienak, badaki, eta gipuzkera menderatzen duena nagusi. Beste batzuk, euskera ogibide dutelarik ere, ortxe dabiltza aal duten moduan, oguzkera txarra, erderakadak joskeran, eta nagieuskera iztegian gaiñezka dutelarik.

Bitarte orretan bizkaierak indartsu or darrai, errian sustraiturik, bizi-bizirik, Bizkaiko ikastoletatik kanpo utzi badute ere. Bizkaian eraikitako ETBn ez dauka tarterik, noizean bein ez bada. Meza Santua Bizkaitik ematen dutenean, ain zuzen, izaten dugu aukera bakarra bizkaiera landua entzuteko, eta gaiñontzean jai... !!! ETBn Iparaldearen Orena izeneko saioa ematen da. Bizkaiko lurraldean kokaturik dagoen ETBn ez ote du ainbeste merezi, Bizkaiko Orenak??

Aresti euskaldun berria santifikatzeko, Orixe infernue-tara bidaltzen saiatu zirenak, lortua izango dute beren elburua, bizkaierarekin gertatu dena ikusirik. BIZKAIERA: Lauaxeta, Arresebeitia, Kerejeta, Onaindia. Akesolo. eta Euskerazaintza'ko gure leendakari den Martin Olazar, batzuk aipatzearen, goi-goi maillako euskalari auen euskalki aberats eta sendoa. Bizkaitarrek ere, ordaintzen duten ETBn kanpoan utzi dute bizkaiera, "Txori soloan", belarretan, alajaiña !! Lizardi goratuko

dizue, ark esan zuena ordea?" Baiña nik izkuntza larreakoa, nai aunat ere noranaikoa, jakite egoez igoa... "

Eta ebakuntza besterik izan ez zenari, batasuna deitzen diote Eta euskera zaararen zati bat, zati aundi bat, zati eder bat, zati aberats bat, bizkaiera, illerrirako bidean, dekretu bidez. Felipe Arrese-Beitiak zioen ura dakortik gogora:

Euskaldun jaio nintzan
euskalduna azi,
euskara utsik amak
eustan irakatsi.
Euskara maite maite
zabiltz neugaz beti,
euskara il ezkeru
ez dot gura bizi.

188Iko Urriaren 29an.

Eta bizkaiera ere, euskera da noski.

"EUSKALDUNAK", "Uitzi liburua" deitua izan den orrekin jarraituz, leenengo orrian azaltzen den olerkia aipatzera noa:

"Zatozkida goi arnas eizu nerekin lan/ *Erri baten arnasa* mamitu dezadan./ Geroak esan beza: "*Erri bat izan zan*"; / edo-ta ats emaiogun ontan iraun dezan".

Bi esaldi bereziko ditut:

ERRI BATEN ARNASA. Euskera dela esan nai ote du ? Nik baietz esango nuke. Eta ori nork ukatu ?

ERRI BAT IZAN ZAN: Beraz euskera gabe ez dago Erririk? Euskal Erririk? Ori denok esan oi dugu.

Oxire-k poema liburuan erabillitako gaiak auexek dira:

Pestaburu- Artazuriketa-Gaiztaiñaro-Iruleak-Olentza-ro-Iñauteri-Denok Bat- Axurtaro-Letari- Artajorra-Belarrrekoan-Eultzia-Eztaietan-Eztaiondo eta Amonaren Illetak. Baserri giroa.

Orixe aundia, bere apaltasunaren lotsaz edo, poema argitaratu nai ez da ibilli omen zela, diote. Lizardi bere lagun miñak bultzarazi ornen zuen argitaratzera. Beraz. euskaldunongandik, eskerrik onena, merezi dute biak, betirako gelditu zaizkigun "Euskalduna-k" poemaren urrezko letra orientatik.

"Euskalduna-k" liburuan azaldutako olerkietako bat bearko nuke irakurri, orain. Zillegi bekít, ordea, ori ez egitea, eta Orixe- k Lizardi il ondoren idatziriko poema irakurriko dut. Benetan ona, sarkorra eta unkiagarria. Merezi du !!

BETI LAGUN
(Orixe-k Lizardi-ri)

Non ago? Non aut? Ez ote da auxe
neretzat leengo Tolosa?
Ez al dezaket entzun berriro
mintzo goxoaren otsa?
Bego negarra, lurrindu bedi
begian malko mingotsa,
ala ere ez uke nik iregatik
negar egitea, lotsa.

Ire erraiñua ikusten diat
nere begion txingarra:
argi biurtu dela nioke
ire ezpañen irriparra.
Dante-ren itzal isillak beude,
betorkit neri ire garra,
bete dezadan azken aginduz
eman idaken bearra.

Biotz-bertsoak egin nai eta,
Jainko billa nauk oldartu;
ik esan idan bein ta berriro
ontan nendilla leiatu.
Lagun egidak argi or^rekin,
nere bigarren aingeru,
igan ikusten diat garbien
Jaungoikoaren erraiñu.

Jainkorik ezin, ez da aingerurik
gorputz-antzean iduri;
siñesten iñoiz konturatzen nauk
itzalpean nautela ni.
Illun ortatik bizi ontara
i aut bitartean argi;
erraiñu onen dirdaia lagun
aurrean zeuzkeat beti.

Beretarbidan, iturri askan
agertu didak begia,
osto tartetik iragazirik
eguzkiaren izpia.
Nere aurretik, ibilli gabe,
igaro uan mendia,
ikusi genin basora antzean
loretan den sagastia.

Leen lagun zintzo gorputz –bizitzan,
orain are lagunago,
tokiz aldatzen nekerik ez duk
ez,egal, eta ez zango.
Begi-orde ok aurreko ormara
eguzkiak joa baiño.
zintzoago abil nere aurrean,
abil ni bizi naizaiño.

Oroitu ta aaztu, burruka diat,
tartez bakar eguzkia,
erraiñu onek irauten balu,
auxe da nere zoria.
Goibeltzen bazait, gainbera bedi
bego barren au gorria,
gorputz ustel au, gandu naasi au
daiteken arte eroria.

Biga atera duk, begiak lauso,
ikullu-zoko beltzetik,
begiak urez igurtzi eta
lauso orrek aldegiten dik.
Egun otako negar-malkoak
truka ditudanean nik,
ni il arte ez beza Jaungoikoak nai
ire erraiñua galtzerik.

Nere bigarren albo-aingeru,
nere Jainko-erakusle,
il arte lagun, ortik onera
ez zegok leen ainbat bide.
Bakar-bakarrik nakustenean
jendeak esan bezate:
bekokian dik aren itzala,
lagun dik oraindik ere.
Orixe-k

Zer-nolako lotura izan zuten Orixe-k eta Lizardi-k
jakin nai duenak, irakur bitza aapaldi sakon zorigarri
auek. Eta bein eta berriz irakurrita ere, ez da aspertuko

Eta bukatzeko "Orixe Omenaldi" liburutik beste zati
bat jaso dut. Onela dio Mitxelena jakintsuak: "(....) Gizon
bezala, eta ori da noski leenbizikoa, ezin-obeia da "Orixe"k
utzi digun eredia. Egiatzko gizon, bere buruarekin borroka
eta Jainkoaren billa, egiatzko euskaldun eta euskaltzale.
Euskal Erriaren seme jator, ez itzez eta oiuz, egunoroko lana-
ren lanez baizik. Goian bego eta bildu zigun uzta onerako
izan bekigu, bizi zitzaigunean bezalaxe"

Gizaldi batetik bestera, badakigu aldaketak sortzen
direla, tira-birak ere bai. Nik lantxo onetan aipatutakoak,
beste zerbait ez ote du azaltzen? Agian, austura, mozke-
ta, etena, leenaren apurketa neurri batean? Gera
bitez ortxe, zintzilik nire galderak. Bakoitzak eman
dezaion bere buruari edo besteei iritzia edo erantzuna.

Etenak ez dira onak izaten. Errotik erria eta lepotik
uztarria. Gure erriaren euskera eta kultura lantzen, orota-
rikoak dugu leku. Leengoen egiñak, gaurkoenak eta gero-
koenak. Eta orrela denon artean, bere osotasunean agertu
aal zintzoago dugu, erro-errotik gure Euskal Erriaren muiña.

Amaitu dut.

Joxemari Murua
2001'eko Azaroaren 30'ean itzaldia
Bilbao'ko –"Euskerazaleak" elkartearen egoitzan

EDER-LANAK (ETA 4)

TXINAKO ARRESIA

Munduan diran giza-lan aundien artean aundiena Txinako arresia da. 2.450 km. luze eta geienez 16 m. goiorea, barrenean 8 m. zabal eta goian 5 m. Lenago 100 m'rik 100 m'ra torre bat eukan begiratzeko, guztiz 40.000 torre.

Arresi ori egiteko 3000 milloi m.³ gai bear ziran, Cheops'en 120 piramide egiteko beste edo lurraren inguru guztian 2m'ko ormea egiteko beste.

Asi, orain dirana 2.600 urte asi zan baiña geiena XV gizaldian egiña da. Zertarako zan arresia? Asieran euren arteko burruketarako, baiña geroago kanpoko arerioen aurka.

Aldi baten gudariak izan ziran arresia egiten eben langilleak, iñoz 300.000 ibili ziran, baiña lana astiroegi joialako, espetxeetako gaizkilleak, iltzailleak eta lapurrak, eroan ebezan lanera. Ori be ez zan naikoa izan eta erritarrak beartu ebezan, txinatarren artetik iruterik batek joan bear izan eben gizonezkoak. Eundak millak il ebezan goseak eta gaisoak langilleen artean. Onelan diño Txinako abesti zar batek: "Alabatxu bat jaioten ba'jatzu ito egizu, semetxua jaioten ba'da ez egizu azi: Arresi aundia gorpuen gaiñean eginda dago".

Arresia langille edo gudari barik izten zanean, kanpotarrak sartu egiten ziran, Hunoak esaterako. Oneik zergak ordaindu-bearrean aurkitu ziran eta hunoen nagusiai Txina'ko andra anundikiak emon bear izan eutsezan emaztetzat.

Ara zer diñoan 1692n.urtean Txinara joan zan Adam Brand prusiarrak: "Arreciaren gaiñean begiratzeko torrea egoten da, 50 gudarigaz eta onein gaiñean jainkoen jauretzea eta gaiñean ikurriñak. Beti egoten dira or zaintzailleak eta kanpoan beste zaintzaille batzuk gaiñera".

JERUSALEN

Jainko bakarren sinistea dauken iru erlejiñok Jerusalem dauke euren uri santu lez. Judatarak, Islandarrak eta kristiñauak.

Jerusalen izenak Bakezko Errege-alabea esan nai ei dau, baiña orain 2000 urte ezkerro ez da izan bakerik uri eder onetam. Iñon ez da isuri emen isuri dan beste odol, iñon ez da izan emengo beste berotasun eta gorroto. Eta iñon ez da egin emen egin dan beste otoitz.

Jesus'en alditik gaur arte 11 bider galdu dau gudea Jerusalem'ek eta bost bider izan da apurtua. Orregaitik Jesus'en aldiko Jerusalem 20 m'ko sako-nera daben arrien azpian dago.

Kristo'ren osteko 70n. urtean jazo zan iragarritako ondamendia. Tito'k erre egin eban uria, arresia eta jauretzea bota egin ziran eta judatar-rrak barriro guda egin ebenean, Adriano'k barriro apurtu eban dana eta gaiñean beste uri bat egin. 200 urte geroago etorri zan Bizantzio'tik Elena erregeiña eta Jesus'en illobia aurkitu eban.

Aurrezkero Jerusalem jostailu bat izan da: 614n.urtean Persiarrak apurtu eben, 637n.urtean arabiar-rrak, 1.072n.urtean seljuzidak, 1.099n'ean kristiñau kurutzadunak, 1.187n.urtean Saladino sultanak kendu eutsen kristiñau orrei, 1.617n'ean turkoak sartu ziran, 1.917n'ean inglesak, 1948n'ean asi ziran palestindar eta judatarren arteko gudak eta orain era baragarri baten curen artean banatuta dauke lurraldea.

Negartien ormea da gaur geratzen dan antxiñako jauretzearen ormazati bat. Orra urreratzen dira judatarak euren otoitza egiteko: barikuetan eta jai-egunetan an ikusten dira bizar zuri ta luzea dauken gizonak orma orretako arri nabarrai mosuka, jauretzea apurtu zalako negar egiten.

Lurralde aretan diran kristiñauen santutegiak be gorabera guzti orreik jazan dabez: Illobi santua Golgota mendiaren gaiñean, lau norkirentzat lekua da eta intsentsu-lurrunaren usaiña dario, 43 argimutil ederrek argitzen dabe. Bost kristiñau mota dabiltz inguruan: katolikuak, ortodoxoak, siria-koak, koptoak, jakobitak... guztiak dirua batzeko arduraz.

Tokirik baketsuena Oriolandaren mendia da.

Islandarrentzat be Medina ta Meka'ren urrengo uri santua da Jerusalem: Emendik joan ei zan zerura Maoma egodun beorra zan Burak'en gaiñean, Moría menditik gora. Orregaitik egin dabe or islandarrak mezkita eder bat, aitz santuarena deritxona. Barruan Maoma'ren igoerea gogoratzeko gaiak: Gabirel goi-aingeruaren atz baten lekua, egodun zaldia...

Jerusalem ikusgarria da kristiñauontzat eta fede aundia daukanak andik aundiagoa ekarriko dau, ez dana sinistu leikelako baiña bai gauza asko gogorazten dauskuzalako.

PANAMAKO URBIDEA


Atlantik eta Pazifik itxas-aundiak alkartzeko bide luze bat egin bear zan, Egoamerikaren barrenera jatzita, eta antxiñatik egoan or biartean urbide bat egin eta itsas biok alkartzeko asmoa. Karlos Enperadorea be, XVI gizaldian, konturatu zan bear izan orretzaz. 1524n.urtean agindu eban orretarako bideak artzeko baiña ez zan ezer egin urrengo 350 urtetan.

Orain 50 urte dira bide ori zabaldu zala eta Panama'ko urbidea, Suez'ekoagaz batera itxas aundi bi alkartzeko bide egokia da: 6.600 itxas-ontzi igaro dira 1952n.urtean eta amabost urte beranduago bi bider geiago.

Urbide orretatik igaroteko ordaindu bear dana 324.000 pezeta dira.

1869n.urtean amaitu zan Suez'eko urbidea eta orrelan asmatzailleak adoretu egin ziran urbide barri auegiteko. Federiko Lesseps izan zan egillea 1879n.urtean asita, baiña ezin amaitu izan eban. Arazoak askotarikoak: dirua, trebetasuna, osasuna ta abar...

Arrezkero gauzak Laterri Batuak egiten dabezan antzera egin ziran: 1901n eta 1902n.urtean itunak egin ziran eta Laterri Batuak baiño beste iñok ez eukan urbidea egiteko eskubiderik. 1903n.urtean Kolonia'ri zati bat kendu eta Panamá askea sortu zan eta laterri barri onek Laterri Batuak eskubidea emon eutsen urbidea egiteko bear ziran lurretan eta alde bakoitxetik 8k.zabal ebazan zerrendea emon eutsen, guztiz 1432 km. Dana geratzen zan gertu urbidea egiteko. 1906n.urtean Laterri Batuetako Batzar Nagusiak asteko bear zan dirua emon eban eta asmalari



Alhambra: erregeen be-barrura sarrera

zuzendari Georgi Washington Gothals izango zan.

Zazpi urte egin ziran lanean eta lurperiak sarritan gelditu eben lana, trenbideak lurperatuta izten ebezalako. Milloika tone aitz kendu bear izan ziran. 1910n.urtean bakarrik zazpi milloi ta erdi kilo dinamita erabilli ziran. Amarmillaka langille eroan ebazan sukar beillegiak eta malariak. 56.000 langille dagoz illobiratuta urbidearen alboko illerrian.

1914n.urtean, lenengo ludi-guda asi eta laster, dagonillaren 15n.egunean igaro zan urbidetik lenengo itxas-ontzia eta 1920n.urtean, lana amaitu antzean egoala, ofizialki idegi zan mundu guztiarentzat.

Itxasorik itxasora 65 km. dira, zabalerea 200 m'koa.

Esan dagigun labur-labur zelan egiten dan 65 km'ko bide ori.

Itxasorikitxasora, goieraz, 26 m'ko aldea dago. Eksklusak iru mailla daukaz gorantza ta beste iru beerantza. Lenengo ontzia Atlantiko-maillan sartzen da eta urbidean goratu goiko uragaz, bigarren barriro goratu beetik itxita eta irugarren gorengo maillara igon. Goiko zingira orretan aurrera egiten dau. Dana dago itxas-argiz eta boiaz beterik, arantza ta onantza bidea argi egon daiten. Eta gero beerantza bardin baiña alderantziz eksklusen bidez. Dan ori egiteko zortzi ordu bear izaten dira. Urbi-detik doazen ontziak irutarik bat Iparramerikatarak dira.

Amaitu ziran or Iparramerikarrak eukezan esku-bideak eta 2.000n.urtea ezkerro, Torrijos'ek lortu eban itun bateri esker, dana dago Panama'ren esku-bidepean.

MATXU PIKTXU

Frantzisko Pizarro izan zan inkatarren erria zapuztu eban españatarra eta beronek il eban inken azkenengo agintari izan zan Atahualpa, espetxean euki ondoren. Antxe esan eutson Atahualpa'k españatar guztiak ez egozala I Karlos'en alde eta au izan zan Pizarro'ren erantzuna: "Ori orrelan da, inka guztiak zeure alde ez dagozan lez, españatar guztiak be ez dagoz batera Karlos'egaz, esaterako euskaldunak".

Atahualpa erail ondoren beste ogeta emeretzi urtetan egon ziran inkak ezkutatuta eta españatarrak ez ebezan aurkitu iñoz. Toki aretatik azkenengo inkak urten ziranean, aitzuta geratu zan tokia.

Amarka batzuk urte dirala aurkitu dabe barriro: Matxu Piktxu da toki ori eta arranoen abi baten antzera dago 2000m'ko goiereaz eta orma sendo ika-ragarri batzuren gainean.

Pizarro'k 169 gudarigaz, guztiak itzi eben bidean naikoa urre eta odol, inken aginterria erregearen agindupera ekarteko. Onein zorionerako, aginterria zatituta egoan eta Atahualpa'k irabazi eban guda gogor bat izan zan euren artean eta onek Kuzko'n itxaron eutson Pizarro'ri 1532n'eko azillaren 25n.egunean joan jakon Pizarro. Ez eban irabaziko onek inken 30.000 gudariren aurka, baiña maltzurkeriz espetxeratu eban eta 4.000 inka il ebezan egun aretan. Atahualpa'k urregaz erosi nai izan eban Pizarro, ondo ekialako oso urrezaleak zirala, eta auxe

eskiñi eutson: Bera egoan gelea urrez bete eskua jaso eta atzamarra estaldu arte. Pizarro'k onartu eban ori eta españatarrak aberastu ziran, baiña Atahualpa'k espetxeratuta jarraitu eban. Pizarro'k urkamendira eroan chas" eta il-aurrean Atahualpa'k auxe esan eban: "Madarikatuak nire erailtzailleak". Eta madarikapen ori bete egin zan: laster il ziran Pizarro bera eta an egozan españatar guztiak, gogorkeriz. Inditarrak ibilli ziran errudunen billa baiña alperrik. Dana dala, il-aurrean soldaduen kapellauak bateatu egin eban Atahualpa eta Frantzisko ipiñi eutsoen izena. Pizarro izan zan aitabitxi. Gero begi-zuloetara urre goritua ixuri eutsoen.


Atahualpa'ren anaia ipiñi eben errege lez, baiña españatarrak nai ebena ez eban egiten eta guda oso gogorra sortu zan. Kapak, inken erregea, Matxu Piktxu'ra joan zan bere inka guztiakaz. Andik bein baten Kuzko osoa erre eben, baiña españatarrak iñoz ez eben jakin non egozan.

XIX gizaldian urre-billatzaillak ibilli ziran Matxu-Piktxu'ren billa, baiña, alperrik. 1911 n.urteko uztaillaren 24n.egunean Yale Ikastetxe Nagusiko Irakasle batek aurkitu eban, orma aundien barruan eta baso baltz aundiak estalita. Illeak igaro ebazan baso baltzaren sariak eta kentzen suaz eta lanabesakaz eta urtebete igaro-ondoren gauza arrigarria ikusi eban: Ormatzarrak, mailak, leun-uneak, bere lagunak zenbatu ebazan maillak eta 3.200n'ean galdu eban kontaketa. Gero torre aundiak, iturriak, jauretxeak, ollobietan momiak eta arri santuak. 10.000 notin bizi ei ziran an. Atzekoaldetik 700 m. sakona dan jauzi bat dago eta urubanba ibaia doa bizkor. Ibai onen gainean, antza, kendu-imiñiko zubi bat egoan, iñor ara sartu ez zeiten, batez be españatarrik joan ez daiten.

GLAZAR'lar Martín



EUSKALDUN **BARRIENTZAT**



Marrazki onetan aurkitu bear dozuz gauza onek: bonbil, kapel-luze, azta-makil, su-bizteko, txilibitu ta zuzenkai bat.

KARMELE





ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO



BILBAO 700 • III MILLENIUM

kultura sortzen dogu

Sormena bultzatzen dogu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, barriak eta klasikoak, bear-bearrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia.

Au da gure kultura.

www.bbk.es

200 pezeta (1,20 Euro)

bbk²